

MERCABILBAOK 505 TONA EMAN DIZKIO 2021EAN

BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUARI

- **Banaketa-zentroko handizkako 23 enpresak egindako dohaintza Bizkaiko ongintza-erakundeak kudeatutako guztiaren % 34 da.**

Basaurin, 2022ko martxoaren 9an. Mercabilbaok pobrezia-egoeran dauden pertsonen alde bere hondar-alea ematearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, are gehiago mundu mailako pandemiak markatutako 2021. urtean. Konpromiso eta lankidetzaren ondorioz, handizkako enpresek 505 tona elikagai eman zizkieten iaz Bizkaiko Elikagaien Bankuari. Ohikoa denez, dohaintza gehienak frutak eta barazkiak izan dira.

Guztira, Mercabilbaoko 23 enpresak egin gura izan dute ekarpena eta 2021ean irabazi-asmorik gabeko ongintza-erakundeari lagundu gura izan diote. Elikagaien Unitatearen instalazioetatik egindako dohaintza Bizkaiko Elikagaien Bankuak kudeatutako guztiaren % 34 da.

Bizkaiko erakundeak, bertako zuzendaritzak elikadura-zentroaren instalazioetan lagatako biltegi batetik gauzatzen du bere jardueraren zati bat. Bertan, boluntario talde batek sailkatu eta arin banatzen du handizkariak helburu sozialak dituzten erakundeei emandako elikagaien soberakina, hala nola, parroquia-zentroei, jantoki sozialei edo laguntza-zentroei.

Urtez urte, Mercabilbaok gero eta merkatu jasangarriagoa lortzeko ahaleginak areagotzen ditu eta elikagaien xahutzea prebenitzeko estrategiak indartzen ditu. Ildo horretan, gogorarazi dutenez "ez dago existitzen ez dena baino hondakin hoberik, eta Bizkaiko Elikagaien Bankuari dohaintza kudeatuz, gizarte-lanaz gain, ingurumen-onura ere lortzen dugu, hondakinak sortzea saihestuz".

Informazio gehiago:

Eneriz Urrutxurtu

BLOK Comunicación Estratégica

637 55 83 52

eneriz@biokcomunicacion.com